

ITSASONDOKO UDALEAN
EUSKARAREN ERABILERA
AREAGOTZEKO PLANA
2023-2027



SARRERA	3
VII. PLANGINTZALDIA (2023-2027). ITSASONDOKO UDALA.....	5
KUDEAKETA ETA ERABILERA MARKOA EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO	6
1- Ardatza: KUDEAKETA.....	6
2. Ardatza: ERABILERA	14
2.1 ZERBITZU-HIZKUNTZA	14
2.2 LAN-HIZKUNTZA.....	19
2023-2024-2025eko KUDEAKETA PLANa	27
ERANSKINAK	38
I Eranskina: Adierazleen Aginte Panela.	38
II eranskina. Diagnostiko kuantitatiboaren emaitzak eta puntuazioa.....	41
III. Eranskina Lanpostu zerrenda	46
.....	46

SARRERA

Txosten honetan jaso dugu Itsasondoko Udalaren Euskara Normalizatzeko Plana. Dokumentuaren helburua da erakustea euskarazko jardunak zer toki duen udalean eta hobetzeko zer pauso eman behar diren. Planean, UEMAREN hizkuntza irizpideak jasotzen dira, haiek izango baitira erreferentzia ibilbide guztian, baita UEMAREN irizpideak betetzeari begira udalak bere jardunerako onartutako hizkuntza irizpide xehetuak ere.

2023-2027 artean izango du balioa planak, eta urtez urte kudeaketa plan bat egingo zaio, bost urteko ikuspegi estrategikoaren baitan urtez urteko helburuak, arduradunak, epeak, neurriak eta baliabideak zehaztuta.

UEMAK eta udalak elkarlanean egindako plana da hau, eta horretarako udal langileen eta ordezkarien parte-hartzea izan du. Udal langile eta ordezkari guztiei zuzendutako plana da; beraz, plana udalbatzak onartutakoan, denek bete beharko dituzte bertan jasotzen diren irizpideak.

Itsasondoko Udala UEMAKO kide

Etorkizuneko Euskal Herri euskaldun baten alde lanean ari den erakunde publikoa da Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea.

Euskal Herriko mutur batean zein bestean sakabanatuta egon arren, eta neurritz ere denak berdinak ez izan arren, elkarren artean antzekotasun handiak dituzten herriz osatuta dago: berezko hizkuntzak batzen ditu. UEMAKO udalerrietan, lurgune euskalduneko herriak izaki, biztanleen %70ak baino gehiagok daki euskaraz.

1991. urtean, 17 udalek eratu zuten mankomunitatea, eta gaur egun lurgune euskaldunetako 101 udalerririk osatzen dute. Hego Euskal Herriko lau herrialdeetako udalak biltzen dituen mankomunitate bakarra da.

Horrenbestez, herritarrek arlo guztietan euskaraz bizitzea posible izateko lan egiten du mankomunitateak. Euskara nagusi den lurgunea erabat euskalduntzeaz gain, lurgune euskalduna zabaltzea bultzatu nahi du UEMAK.

Euskal Herriaren berezko hizkuntza sustatzeko asmoz, udala partaide den Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA), berriz, bere jardunbidea arautzen duten estatutuetan dio bere helburu orokorra dela, besteak beste, udal partaideen administrazioetako barne jardueran eta udalerrietako arlo guztietan euskararen erabilera ahalbideratzea eta bermatzea.

Itsasondoko Udala UEMAKO kide da, eta lankidetzan jardun du UEMAREKIN, bai udal administrazioa euskalduntzeko bidean, bai herrira begirako hainbat jardueratan.

VII. PLANGINTZALDIA (2023-2027). ITSASONDOKO UDALA

Plan estrategikoaren izena:

Itsasondoko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa.

Bisioa:

Udalean euskararen erabilera indartzea eta areagotzea, bai zerbitzu hizkuntza bai lan hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntz eskubideei erantzun ahal izateko.

Derrigorrez bete beharreko indizea

19/2024ko Dekretuaren 25. artikuluan derrigorrezko eskakizunen indizea ezartzen da (euskaldunak + (iaeuskalduank/2)). Itsasondoko Udalari, 2021eko erroldako datuen arabera, % 79,7 dagokio.

Euskarazko administrazio unitatea

19/2024 dekretuan zehaztutakoaren arabera, plan estrategikoan, entitateak euskarazko administrazio-unitateak izendatu ahal izango ditu, beren eginkizunak nagusiki euskaraz beteko dituztenak. Euskarazko administrazio-unitateak dira lanpostuen % 80an gutxienez lanpostu bakoitzari dagokion hizkuntza-eskakizuna edo goragokoa egiaztatuta dutenak, arduraduna barne. Itsasondoko udal osoa izango da euskarazko administrazio unitatea.

Plan estrategikoaren egitura



PLAN ESTRATEGIKOAREN LABURPENA

Hasierako egoera	Aurreikuspena 2027	Aldea
% 81	% 88,2	% 7,2

1- ARDATZA: KUDEAKETA

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea
% 64,7	% 75,8	% 11,1

2. ARDATZA: ERABILERA

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea
% 89,2	% 93,5	% 4,3

ERRONKAK

KUDEAKETARAKO ERRONKAK

Egitura egokia antolatzea udalaren kudeaketa orokorrean txertatuta.

Jarraipen sistematikoa egitea.

Hizkuntza irizpideak ezagutarazi eta betearaztea.

Arduradun politikoen zein langileen lidergotza sustatzea.

- ERABILERARAKO ERRONKAK

Hizkuntza irizpideak ezagutarazi eta betearaztea.

Euskara izatea sortze-, lan- eta zerbitzu-hizkuntza.

Helburu estrategikoak

ERABILERA	ZERBITZU HIZKUNTZA	KUDEAKETA	EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	<p>Egitura egonkorra eratu planaren jarraipenerako udaleko langile eta ordezkari politikoekin</p> <p>Euskararen kudeaketa orokorra udalaren kudeaketaren baitan integratu eta sistematizatzea.</p> <p>Hizkuntza irizpideak onartzea</p> <p>Erabilera planean zehaztutako helburuen eta hizkuntza irizpideen betetze mailaren jarraipen sistematikoa egitea.</p>
			LIDERGOA	<p>Udal ordezkari eta arduradunek euskararen normalizazioan jarrera proaktiboa izatea.</p> <p>Udal ordezkari eta arduradunek hizkuntza irizpideak ezagutzea eta betetzea.</p> <p>Udal ordezkari eta arduradunak herritarrentzat eta langileentzat eredugarri izatea.</p>
			LANGILEAK	<p>Langileek euskara maila hobetzea, bereziki lanpostuaren hizkuntza eskakizuna adinako euskara maila ez dutenak, edo eginkizunak euskaraz egoki betetzeko zailtasunak dituztenak</p> <p>Hautaprobetan, derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan, proba bat gutxienez euskaraz egitea</p> <p>Ordezkari politikoak euskaldunak izan daitezen sustatzea.</p> <p>Gaitasunik ez duten ordezkari politikei laguntza eta trebakuntza eskaintzea udalak euskaraz funtzionatu ahal izateko</p>
			HIZKUNTZA-KLAUSULAK	<p>Kontratuetakoko hizkuntza klausulak txertatzea.</p> <p>Kontratuetakoko hizkuntza-klausulen jarraipen sistematikoa egitea</p> <p>Dirulaguntzetarako hizkuntza klausulen ereduak zehaztea.</p> <p>Udal baimenetarako hizkuntza klausulen ereduak zehaztea</p>
			IRUDIA	<p>Hizkuntza irizpideak betetzea irudiari lotutako adierazleetan.</p> <p>Hizkuntza kalitatea zaintzea.</p> <p>Arduradun politikoek agerraldietako hizkuntza irizpideak betetzea, eta ETB2n euskaraz aritzea.</p>
			HERRITARREKIKO HARREMANAK	<p>Ezarrিতako hizkuntza irizpideak betetzea</p> <p>Langileak eta udal ordezkariak proaktiboak izatea herritarrek euskaraz egin dezaten sustatzeko, idatziz nahiz ahoz.</p> <p>Idatziz euskaraz egiten duten herritarrei sistematikoki euskara hutsean erantzutea.</p>
			BARNE-HARREMANAK	<p>Onartutako hizkuntza irizpideak betetzea.</p> <p>Lankideen arteko ahozko erabilera sustatzea</p> <p>Ofizios abiatzen diren prozedura administratibo guztiak euskaraz abiatzea.</p>
			KANPO-HARREMANAK	<p>Onartutako hizkuntza irizpideak betetzea</p> <p>Erakundeen artean euskara hutsezko harremana sustatzea eta jarraipena egitea</p> <p>Erakunde pribatuen euskara hutsezko harremana sustatzea eta jarraipena egitea.</p>
			PRESTAKUNTZA	<p>Langile guztiei hizkuntza formakuntza eskaintzea.</p> <p>Langileei eskaintzen zaien formazioa euskarazkoa izatea.</p> <p>Langileak hizkuntza eta generoa uztartzen dituzten gaietan trebatzea.</p>

**BALIABIDE
INFORMATIKOAK**

Onartutako hizkuntza irizpideak betetzea.
Lan tresna guztiak euskaraz jartzea.
Baliabide informatikotatik eratorritako inprimaki eta dokumentazioa hizkuntza irizpideen arabera izatea.

**SORTZE-
HIZKUNTZA**

Euskaraz sortzea
Onartutako hizkuntza irizpideak betetzea
Testua sortzerakoan hizkera inklusiboa erabiltzea

1-ARDATZA: KUDEAKETA

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea
% 64,7	% 75,8	% 11,1

- KUDEAKETARAKO ERRONKAK

Egitura egokia antolatzea udalaren kudeaketa orokorrean txertatuta.

Jarraipen sistematikoa egitea.

Hizkuntza irizpideak ezagutarazi eta betearaztea.

Arduradun politikoen zein langileen lidergotza sustatzea.

1.0.1 arloa. EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea
% 65	% 85	% 20

- Adierazle mailako helburuak

1.0.1.2 Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.

Erabilera planaren jarraipena egiteko egitura izatea, eta jarraipena sistematikoki egitea.

Hasierako egoera

Aurreikuspena 2027

% 75

% 85

1.0.1.3

Erakundeak neurriak hartzen ditu euskararen indarberritzean positiboki eragiteko, bere lan-jardun eta politika publiko guztien diseinuan, garapenean eta jarraipenean (INPAKTUA EUSKARAREN INDARBERRITZEAN).

Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egitea eta jarraipena egiteko egitura izatea.

Hasierako egoera

Aurreikuspena 2027

0

% 75

- Egoera

Itsasondoko Udalak plan estrategikoak eta kudeaketa planak kudeatzeko sistema egituratua du. Planak Itsasondoko Udalaren eta UEMAREN artean diseinatu, inplementatu eta ebaluatzen dira. Hizkuntza irizpideen betetze-mailaren jarraipena egiten da kudeaketa planaren baitan.

- Zer hobetuak

Hizkuntza irizpideen sistematizazio maila hobetu daiteke, langileek naturaltasunez egiten duten hori zehazteko eta sistematizatzeko.

Oraingoz ez da herriaren garapenari lotutako proiektuek hizkuntzan izan dezaketen inpaktua neurtu (ELE) eta horrelakorik behar denerako, Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egiteko ordenantza prestatu beharko da.

- Helburu estrategikoak

- Egitura egonkorra eratu planaren jarraipenerako udaleko langile eta ordezkari politikoekin
- Euskararen kudeaketa orokorra udalaren kudeaketaren baitan integratu eta sistemaiizatea.
- Hizkuntza irizpideak onartzea
- Erabilera planean zehaztutako helburuen eta hizkuntza irizpideen betetze mailaren jarraipen sistematikoa egitea

1.0.2 arloa. LIDERGOA

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea
% 64,4	% 82,5	% 18,1

- Adierazle mailako helburuak

1.0.2.4 Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.

Jarraipen batzordean arduradun politikoak inplikatzeari

Hasiera	Aurreikuspena
% 66	% 80

1.0.2.5 Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, erabilera planean finkatutako helburuak bete daitezkeen.

Jarraipen batzordean arduradun politikoak inplikatzeari

Hasiera	Aurreikuspena
% 75	% 85

- Egoera

Itsasondoko Udaleko ordezkari politikoak, arduradun teknikoak eta UEMAKo teknikariak helburuen eta planaren jarraipena egiten dute. Urtean hirutan gutxienez batzartzen dira planaren jarraipena egiteko.

Itsasondoko Udaleko ordezkari politikoak, arduradun teknikoak eta UEMAKo teknikariak helburuen eta planaren jarraipena egiten dute. Arduradun politikoak batzar guztietan aktiboki hartzen du parte, eta eredugarri dira langileentzat.

- Zer hobetuak

Datozen urteotako erronka lanean orain arte bezala jarraitzea izango da.

- Helburu estrategikoak

-Udal ordezkari eta arduradunek euskararen normalizazioan jarrera proaktiboa izatea.

-Udal ordezkari eta arduradunek hizkuntza irizpideak ezagutzea eta betetzea.

-Udal ordezkari eta arduradunak herritarrentzat eta langileentzat eredugarri izatea.

1.0.3 arloa. LANGILEAK

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea
% 74,3	% 88,6	% 14,3

- Adierazle mailako helburuak

1.0.3.7 Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.

Langileek hizkuntza irizpideak ezagutu eta betetzea.	Hasiera	Aurreikuspena
	% 53,1	% 80

1.0.3.8 Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.

Langileek hizkuntza irizpideak ezagutu eta betetzea.	Hasiera	Aurreikuspena
	% 87,5	% 95

- Egoera

Langileek modu naturalean egiten dute lan euskaraz eta irizpide gehienak betetzen dituzte, baina ez kontzientziar. Langileei erabilera planari eta hizkuntza irizpideei buruzko azalpena eman izan zaie, erabilera planak onartutakoan.

- Zer hobetuak

Bete beharreko irizpideen aurkezpena egitea garrantzitsua da, langileen inplikazioa lortzeko. Komunikazio hori aurrez aurre egitea eta irizpideak eskura izateko eran helaraztea zaindu beharko da.

- Helburu estrategikoak

Langileek hizkuntza irizpideak ezagutzea eta betetzea.

1.0.4 arloa. HIZKUNTZA GAITASUNA

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea
% 78,4	% 91,7	% 13,3

- Adierazle mailako helburuak

1.0.4.12

Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko.

Lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna zehaztuta izatea.

Hasiera	Aurreikuspena
% 87,5	% 95

1.0.4.13

Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko.

Lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna zehaztuta izatea eta betetzea

Hasiera	Aurreikuspena
% 75	% 90

1.0.4.14

Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko.

Ardurari dagozkion funtzioak euskaraz betetzeko gai izatea

Hasiera	Aurreikuspena
% 75	% 75

- Egoera

Udal ordezkari eta langile gehienek euskaraz lan egin eta euren funtzioak euskaraz betetzeko gaitasuna dute. Udal ordezkari eta langileek euskaraz lan egiteko gaitasuna dute. Unean uneko zalantzak argitzeko badakite nora jo, autonomia dute.

- Zer hobetuak

Datozen urteotako erronka egoerari bere horretan eustea izango da.

- Helburu estrategikoak

- Langileek euskara maila hobetzea, bereziki lanpostuaren hizkuntza eskakizuna adinako euskara maila ez dutenak, edo eginkizunak euskaraz egoki betetzeko zailtasunak dituztenak
- Hautaprobetan, derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan, proba bat gutxienez euskraz egitea
- Ordezkeri politikoak euskaldunak izan daitezen sustatzea.
- Gaitasunik ez duten ordezkari politikei laguntza eta trebakuntza eskaintzea udalak euskaraz funtzionatu ahal izateko

1.0.6 arloa. HIZKUNTZA-KLAUSULAK

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea
% 69,6	% 84,3	% 14,7

- Adierazle mailako helburuak

1.0.6.17 Kontratuetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira.

Udalak egiten dituen kontratuetan kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartzea, herritarrei bermatzeko toki-erakundeei exijitzen zaizkien hizkuntza baldintza berberetan jasotzea kontratu bidezko jarduerak edo zerbitzuak.

Hasiera	Aurreikuspena
% 100	% 100

1.0.6.18 Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira.

Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak euskara sustatzeko eta herritarren eskubideak babesteko hizkuntza klausulak sartzea.

Hasiera	Aurreikuspena
0	%100

1.0.6.19 Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetakoz hizkuntza-klausulen betetze-mailari.

Kontratazioetako hizkuntza klausulen betetze mailaren jarraipena sistematizatzea

Hasiera	Aurreikuspena
75	75

- Egoera

Hizkuntza klausulak batik bat kontratazioetan sartzen dira; hitzarmen eta dirulaguntzetan ez da horrelakorik txertatu, herriko elkarteek ekintzak euskaraz egingo dituztela aurreikusten delako.

Hizkuntza klausulak ezarri izan dira kontratazioetan, eta jarraipena egin da gatazkak egon direnean.

- Zer hobetuak

Hizkuntza klausulak ezartzea kontratazioetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan, sistematikoki.

- Helburu estrategikoak

- Kontratuetakoz hizkuntza klausulak txertatzea.
- Kontratuetakoz hizkuntza-klausulen jarraipen sistematikoa egitea
- Dirulaguntzetarako hizkuntza klausulen ereduak zehaztea.
- Udal baimenetarako hizkuntza klausulen ereduak zehaztea

2. ARDATZA: ERABILERA

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea
% 89,2	% 93,5	% 4,3

- ERABILERARAKO ERRONKAK

Hizkuntza irizpideak ezagutarazi eta betearaztea.

Euskara izatea sortze-, lan- eta zerbitzu-hizkuntza.

2.1 ZERBITZU-HIZKUNTZA

2.1.1 arloa. IRUDIA

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea
% 96,2	% 98,4	% 2,2

- Adierazle mailako helburuak

2.1.1.21

Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude.

Hizkuntza irizpideak bete eta errotuluak eta ikus-entzunezkoak euskaraz izatea

Eus	Eleb	Aurreik Eus	Aurrei. Eleb
% 100	0	% 100	0

2.1.1.22

Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude.

Hizkuntza irizpideak bete eta argitalpen, iragarki eta publizitateak euskaraz izatea

Eus	Eleb	Aurreik Eus	Aurrei. Eleb
% 100	0	% 100	0

2.1.1.23

Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionalan.

Hizkuntza irizpideak bete eta agerraldi instituzionalan euskara erabiltzea.

Eus	Eleb	Aurreik Eus	Aurrei. Eleb
% 100	0	% 100	0

2.1.1.24

Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak.

Hizkuntza irizpideak bete eta webgunea eta sare sozialak euskaraz izatea

Eus	Eleb	Aurreik Eus	Aurrei. Eleb
% 76	% 24	% 76	% 24

- Egoera

Euskaraz daude udaleko errotuluak, bai finkoak baita behin behinekoak ere.

Sistematikoki errotulu berriak euskaraz jartzen dira.

Agerraldi instituzionalak euskaraz egiten dira.

Udalak Whatsapp aplikazioko bi difusio kanal dauzka: batean mezuak euskara hutsez bidaltzen dira (151 harpidedun), eta bestean ele bietan (23). Herritarrek erabakitzen dute zein kanaletan harpidetu.

- Hobetu beharrekoak

Komunikazio kanalei dagokienez, Telegram moduko aplikazioen erabilera aztertuko da, euskara hutsezko mezuak bidaltzeko, eta hartzaileek norbere hizkuntzara itzultzeko.

- Helburu estrategikoak

- Hizkuntza irizpideak betetzea irudiari lotutako adierazleetan.

- Hizkuntza kalitatea zaintzea.

- Arduradun politikoei agerraldietako hizkuntza irizpideak betetzea, eta ETB2n euskaraz aritzea.

2.1.2 arloa. HERRITARREKIKO HARREMANAK

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea
% 95,2	% 98	% 2,8

- Adierazle mailako helburuak

2.1.2.25 Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.

Langileak proaktiboak izatea herritarrek euskaraz egin dezaten	Hasiera	Aurreikuspena
	% 83,8	% 90

2.1.2.26 Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.

Langileak proaktiboak izatea herritarrek euskaraz egin dezaten	Hasiera	Aurreikuspena
	% 93,8	% 100

2.1.2.27**Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.**

Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzea, baita horiei lotutako hizkuntza euskarriak ere.

Hasiera	Aurreikuspena
% 100	% 100

2.1.2.28**Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen eta eskuratzen zaizkie dokumentuak.**

Langileek ezarritako irizpideak betetzea, eta euskaldunei euskaraz bidaltzea dokumentuak eta euskaraz ez dakitela adierazi dutenei elebitan.

Eus	Eleb	Aurreik Eus	Aurrei. Eleb
% 90	% 10	% 90	% 10

2.1.2.29**Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.**

Langileek ezarritako irizpideak betetzea, eta euskaldunei euskaraz bidaltzea dokumentuak eta euskaraz ez dakitela adierazi dutenei elebitan

Eus	Eleb	Aurreik Eus	Aurrei. Eleb
% 100	0	% 100	0

2.1.2.30**Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz.**

Langileek eta arduradun politikoek ezarritako irizpideak betetzea eta urtez urte euskaraz zuzentzen diren herritarren kopurua igotzea.

Hasiera	Aurreikuspena
% 71,9	% 75

2.1.2.31**Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz.**

Langileek eta arduradun politikoek ezarritako irizpideak betetzea eta urtez urte euskaraz zuzentzen diren herritarren kopurua igotzea

Eus	Eleb	Aurreik Eus	Aurrei. Eleb
% 95	0	% 95	0

- Egoera

Euskaraz egiten zaio lehen hitza herritarrari eta elkarrizketa gehienak euskaraz izaten dira. Euskararen erabilera sustatzeko "Hemen euskaraz bizi gara" errotulua jarrita dago.

Hala ere, herri txikia izanik, udaleko langileek badakite nor ez dakien euskaraz, eta lehen hitza eta gainerakoak ere gaztelaniaz izaten dira kasu horietan.

Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei euskaraz erantzuten zaie eta gaztelaniaz aurkeztutakoei ele bietan.

Herritarrentzako ikastaroak eta hitzaldiak euskaraz izan ohi dira. Batzuetan aldi bereko itzulpena egiten da.

- Hobetu beharrekoak

Datozen urteotako erronka egoerari eustea izango da. Hitzaldietan aldi bereko itzulpena egitearen irizpidea ez dago inon jasota. Idatziz jaso daiteke.

- Helburu estrategikoak

-Ezarrিতako hizkuntza irizpideak betetzea

-Langileak eta udal ordezkariak proaktiboak izatea herritarrek euskaraz egin deaten sustatzeko, idatziz nahiz ahoz.

- Idatziz euskaraz egiten duten herritarrei sistematikoki euskara hutsean erantzutea.

2.2 LAN-HIZKUNTZA

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea
% 86,1	% 91,4	% 5,3

2.2.1 arloa. BARNE-HARREMANAK

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea
% 98,2	% 100	% 1,8

- Adierazle mailako helburuak

2.2.1.32

Lan-bilerak euskaraz egiten dira.

Langileek eta arduradun politikoek ezarrিতako irizpideak betetzea eta bileretako hizkuntza euskara izatea.

Hasierako egoera	Aurreikuspena
% 99,4	% 100

2.2.1.33**Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da.**

Langileek ezarritako irizpideak betetzea

Hasierako egoera**Aurreikuspena**

% 95

% 100

2.2.1.35**Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.**

Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egitea, eta betetze mailaren jarraipena egitea.

Hasierako egoera**Aurreikuspena**

% 98

% 100

2.2.1.36**Erakundeak euskaraz gutxienez lantzen ditu ofizioz abiatutako prozedura administratiboen barne izapideak, betiere hartzailea ezaguna ez den kasuetan.**

Langileek ezarritako irizpideak betetzea eta euskaraz lantzea ofizioz abiatutako prozedurak.

Eus**Eleb****Aurreik
Eus****Aurrei.
Eleb**

% 100

0

% 100

0

2.2.1.38**Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago.**

Langileek ezarritako irizpideak betetzea eta euskaraz izatea lanari lotutako hizkuntza-paisaia. Betetze mailaren jarraipena egitea.

Eus**Eleb****Aurreik
Eus****Aurrei.
Eleb**

% 86,88

% 11,88

% 94

% 6

- **Egoera**

Euskaraz dago udaleko hizkuntza paisaia, bai finkoak baita behin-behinekoa ere; hala nola, artxibadore, espedienteen izenak eta bestelakoak.

Barne batzarrak, informalak zein formalak euskaraz egiten dira.

Barruko txostenak euskaraz sortzen dira, eta prozedura administratiboak eta xedapenak euskaraz sortzen dira.

- **Zer hobetuak**

Egoerari eustea izango da datozen urteotako erronka.

- Helburu estrategikoak

Onartutako hizkuntza irizpideak betetzea.

Lankideen arteko ahozko erabilera sustatzea

Ofizios abiatzen diren prozedura administratibo guztiak euskaraz abiatzea.

2.2.2 arloa. KANPO-HARREMANAK

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea
% 91,1	% 98	% 8,9

- Adierazle mailako helburuak

2.2.2.40	Sektore publikoko erakundeei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie idatzizko komunikazioak.	Eus	Eleb	Aurreik Eus	Aurrei. Eleb
	Langileek eta arduradun politikoek ezarritako irizpideak betetzea eta EAEko zein Nafarroako Foru Komunitateko lurralde esparruan kokatuta dauden beste administrazio publikoekin nahiz erakunde ofizialekin, euskara ofiziala den lurraldeetakoekin behintzat, euskara hutsezko harremanak bultzatzea. Betetze mailaren jarraipena egitea	% 95	% 5	% 100	0
2.2.2.42	Enpresa pribatuekin euskaraz edo ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak.	Eus	Eleb	Aurreik Eus	Aurrei. Eleb
	Langileek eta arduradun politikoek ezarritako irizpideak betetzea eta erakunde pribatuetarako agirien kasuan euskara erabiltzea beti (jakinarazpenak, baimenak, dekretuak, gutunak...). Erakunde pribatuak gaztelaniaz jasotzeko eskaera egiten badu, ele bietan helaraztea. Betetze mailaren jarraipena egitea.	% 95	% 5	% 95	% 5

- Egoera

Sektore publikoko beste erakundeetako ordezkariekin euskaraz bideratu ohi da harremana.

Enpresa pribatuekin ere euskaraz izan ohi da harremana.

Idatzizko harreman gehienak euskara hutsez izan ohi dira, sektore publikoko ordezkariekin zein enpresa pribatuetakoekin.

- Zer hobetuak

Datozen urteotako erronka egoerari eustea izango da.

- Helburu estrategikoak

Ezarrিতako hizkuntza irizpideak betetzea

Erakundeen artean euskara hutsezko harremana sustatzea eta jarraipena egitea

Erakunde pribatuen euskara hutsezko harremana sustatzea eta jarraipena egitea.

2.2.3 arloa. PRESTAKUNTZA

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea
% 58,8	% 63,5	% 4,7

- Adierazle mailako helburuak

2.2.3.43 Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra.

Langileek eta arduradun politikoek ezarrিতako irizpideak betetzea eta udalak antolatzen dituen ikastaro guztiak euskaraz izatea. Langileek beste erakunderen edo enpresaren batek antolatzen dituzten prestakuntza ekintzetara joan behar badute, euskarazkoa hautatzea, aukera den guztietan..

Hasierako egoera	Aurreikuspena
% 41,6	% 65

2.2.3.45 Hizkuntza-trebakuntza eskaintzen zaie langileei.

Langileek hizkuntza gaitasun egokia izatea dagokien funtziorako, eta horretarako trebakuntza eskaintzea.

Hasierako egoera	Aurreikuspena
% 25	% 60

- Egoera

Udalak ez du antolatzen prestakuntzarik. Kanpoko eskaintzaren arabera eta beharrianen arabera eskaintzen dira ikastaroak, eta oro har, euskaraz izan ohi dira.

Hizkuntza-trebakuntzari dagokionez, langileek eta arduradun politikoek hilero trebakuntza fitxa jasotzen dute, eta UEMAko trebakuntza ikastaroak on line nahiz aurrez aurre egiteko aukera dute

- Zer hobetuak

Hizkuntza-trebakuntzari garrantzia handiagoa eman ahal zaio. Arau orokor batzuk, orduak esateko modua... Bisualki lan lekuan izatea planteatu daiteke, kontsultatu ahal izateko.

- Helburu estrategikoak

Langile guztiei hizkuntza formakuntza eskiantzea.

Langileei eskaintzen zaien formazioa euskarazkoa izatea.

2.2.4 arloa. BALIABIDE INFORMATIKOAK

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea
% 81,1	% 92,5	% 11,4

- Adierazle mailako helburuak

2.2.4.46

Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak.

Udalak euskarazko bertsioa jartzea beti guztiei. Aplikazio informatikoak kontratatu edo garatu behar badira, euskarazko bertsioa dutenak lehenestea. Administrazio-jarduera automatizatuko sistemak nahiz bestelako aplikazioak diseinatzen direnean, euskara izatea lehen hizkuntza, erantzuteko eta kontsultak egiteko.

Hasiera	Aurreikuspena
% 77,1	% 85

	Hasiera	Aurreikuspena
Udalak euskarazko bertsioa jartzea beti guztiei. Aplikazio informatikoak kontratatu edo garatu behar badira, euskarazko bertsioa dutenak lehenestea. Administrazio-jarduera automatizatuko sistemak nahiz bestelako aplikazioak diseinatzen direnean, euskara izatea lehen hizkuntza, erantzuteko eta kontsultak egiteko.	% 85	% 100

- Egoera

Euskaraz dauden baliabide informatiko gehienak euskaraz erabiltzen dituzte langile gehienek.

- Zer hobetuak

Gaztelaniaz erabiltzen dira hainbat aplikazio informatiko eta ordenagailuetan euskarazko zuzentzailerik ez da erabiltzen. Plangintzaldi honetan errepasso bat egin daiteke, euskaraz erabili ahal daitezkeen eta gaztelaniaz dauden baliabideak zerrendatu eta euskarazkoak jartzeko.

- Helburu estrategikoak

Onartutako hizkuntza irizpideak betetzea.

Lan tresna guztiak euskaraz jartzea.

Baliabide informatikotatik eratorritako inprimaki eta dokumentazioa hizkuntza irizpideen arabera izatea.

2.2.5 arloa. SORTZE-HIZKUNTZA

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea
% 87,5	% 90	% 2,5

- Adierazle mailako helburuak

2.2.5.48

Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak.

Udaleko administrazio-atal eta lanpostuetako dokumentazioa euskaraz sortzea horretarako gaitasuna duten langileek.

Hasierako egoera

% 87.5

Aurreikuspena

% 90

- Egoera

Euskara da sortze hizkuntza, eta itzultzekotan, euskaratik gaztelaniara itzuli ohi da. Langileek itzultzaile neuronala ezagutzen dute.

- Zer hobetuak

Langile guztiek ezagutzea itzulpenetarako eta zuzenketetarako dauden baliabideak, eta zuzentzailea instalatzea ordenagailuetan.

- Helburu estrategikoak

Euskaraz sortzea

Onartutako hizkuntza irizpideak ezartzea

Testuak sortzerakoan hizkera inklusiboa erabiltzea

2023-2024-2025EKO KUDEAKETA PLANA

URTEA	EREMUA	ARLO GILTZARRIA	KODEA	HELBURUA	EKINTZAK	HARTZAILEK	ARDURADUNAK	EKINTZAREN ADIERAZLEA
2023	1_KUDEAKETA	1. EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	1.0.1.2.	Erabilera planaren jarraipena egiteko egitura izatea, eta jarraipena sistematikoki egitea.	1. Jarraipen batzordea eratu eta funtzionamendua adostu	Udal kide guztiak	Talde eragilea Udal ordezkariak Udal arduradun teknikoak	Jarraipen batzordea eratu izana
		4. GAITASUNA	1.0.4.14.	Ardurari dagozkion funtzioak euskaraz betetzeko gai izatea	3. Beharrezkoa bada arduradun politikoentzako euskalduntzea eskaintzeko aukera aztertu	Ordezkaritza politikoa	Talde eragilea	Arduradun politikoentzako ezagutza maila aztertu izana
		4. GAITASUNA	1.0.4.14.	Ardurari dagozkion funtzioak euskaraz betetzeko gai izatea	2. Arduradun politikoentzako mailaren jarraipena egin	Ordezkaritza politikoa	Talde eragilea	Arduradun politikoentzako ezagutza maila aztertu izana
	2_ERABILERA	1. IRUDIA	2.1.1.23.	Hizkuntza irizpideak bete eta agerraldi instituzionaletan euskara erabiltzea	1. Sentsibilizazioa: hautetsien gogoeta saioan jakinarazi	Herritarrak	Talde eragilea Udal ordezkariak Udal arduradun teknikoak	Hautetsien aurkezpen saioa egin izana
2024	KUDEAKETA	2. EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	1.0.1.3	Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egitea eta jarraipena egiteko egitura izatea.	3. Ordenantzen eta udaleko politiken eragin linguistikoa neurtzea.	Udal kide guztiak	Talde eragilea Udal ordezkariak Udal arduradun teknikoak	Ordenantzen eragin linguistikorako prozedura zehaztu izana
		3. LANGILEAK	1.0.3.7.	Langileek hizkuntza irizpideak ezagutu eta betetzea.	1. Langileei Hizkuntza irizpideak ezagutarazi	Udal langileak	Talde eragilea Udal ordezkariak Udal arduradun teknikoak	Langileentzako aurkezpen saioa egin izana Langileentzako eskuorria egin izana

2_ERABILERA	3. LANGILEAK	1.0.3.7.	Langileek hizkuntza irizpideak ezagutu eta betetzea.	1. Langileei hizkuntza irizpideak ezagutarazi	Udal langileak	Talde eragilea Udal ordezkariak politikoak Udal arduradun teknikoak	Langileentzako aurkezpen saioa egin izana Langileentzako eskuorria egin izana
	6. HIZKUNTZA KLAUSULAK	1.0.6.18.	Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak euskara sustatzeko eta herritarren eskubideak babesteko hizkuntza klausulak sartzea	1. Dirulaguntzetarako klausulak ereduak ezarri, komunikatu eta jarraipena egin.	Dirulaguntza eta baimenen hartzaileak	Talde eragilea Udal ordezkariak politikoak Udal arduradun teknikoak	Dirulaguntza eta hitzarmenetarako hizkuntza klausulak zehaztu izana Dirulaguntza eta hitzarmenetarako hizkuntza klausulak komunikatu izana Hizkuntza klausulak txertatutako dirulaguntza eta hitzarmen kopurua
	6. HIZKUNTZA KLAUSULAK	1.0.6.18.	Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak euskara sustatzeko eta herritarren eskubideak babesteko hizkuntza klausulak sartzea	3. Baimenak (terrazak, barrakak, kaleko salmenta...) Hizkuntza irizpideak ezarri	Dirulaguntza eta baimenen hartzaileak	Talde eragilea Udal ordezkariak politikoak Udal arduradun teknikoak	Baimenetarako hizkuntza irizpide ereduak izatea Hizkuntza irizpideak ezarritako baimen kopurua
	2. HERRITARREKIK O HARREMANAK	2.1.2.25.	Langileak proaktiboak izatea herritarrek euskaraz egin dezaten.	1. Langileei irizpideak jakinarazi	Herritarrak	Talde eragilea. Arduradun politiko eta teknikoak	Langileentzako aurkezpen saioa egin izana Langileentzako eskuorria egin izana
	2. HERRITARREKIK O HARREMANAK	2.1.2.26.	Langileak proaktiboak izatea herritarrek euskaraz egin dezaten. Idatziz euskaraz egiten duten herritarrei sistematikoki euskara hutsean erantzutea, eta gaztelaniaz idazten dutenei elebietan idaztea.	1. Langileei irizpideak jakinarazi	Herritarrak	Talde eragilea. Arduradun politiko eta teknikoak	Langileentzako aurkezpen saioa egin izana Langileentzako eskuorria egin izana
	2. HERRITARREKIK O HARREMANAK	2.1.2.27.	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzea, baita horiei lotutako hizkuntza euskarriak ere.	1. Langileei irizpideak jakinarazi	Herritarrak	Talde eragilea. Arduradun politiko eta teknikoak	Langileentzako aurkezpen saioa egin izana Langileentzako eskuorria egin izana
	2. HERRITARREKIK O HARREMANAK	2.1.2.28.	Langileek ezarritako irizpideak betetzea, eta euskaldunei euskaraz bidaltzea dokumentuak eta euskaraz ez dakitela adierazi dutenei elebitan	1. Langileei irizpideak jakinarazi eta betetze mailaren jarraipena egin.	Herritarrak	Talde eragilea. Arduradun politiko eta teknikoak	Langileentzako aurkezpen saioa egin izana Langileentzako eskuorria egin izana

2. HERRITARREKIK O HARREMANAK	2.1.2.28.	Langileek ezarritako irizpideak betetzea, eta euskaldunei euskaraz bidaltzea dokumentuak eta euskaraz ez dakitela adierazi dutenei elebitetan	7. Idatziak ele biz egon behar badu, euskarari lehentasuna emateko irizpideak helarazi.	Herritarrak	Talde eragilea. Arduradun politiko eta teknikoak	Langileentzako hizkuntza irizpideen aurkezpen saioa egin izana Langileentzako eskuorria egin izana
2. HERRITARREKIK O HARREMANAK	2.1.2.29.	Langileek ezarritako irizpideak betetzea, eta euskaldunei euskaraz bidaltzea dokumentuak eta euskaraz ez dakitela adierazi dutenei elebitetan	1. Langileei irizpideak jakinarazi	Herritarrak	Talde eragilea. Arduradun politiko eta teknikoak	Langileentzako aurkezpen saioa egin izana Langileentzako eskuorria egin izana
2. HERRITARREKIK O HARREMANAK	2.1.2.29.	Langileek ezarritako irizpideak betetzea, eta euskaldunei euskaraz bidaltzea dokumentuak eta euskaraz ez dakitela adierazi dutenei elebitan	7. Idatziak ele biz egon behar badu, euskarari lehentasuna emateko irizpideak helarazi.	Herritarrak	Talde eragilea. Arduradun politiko eta teknikoak	Langileentzako hizkuntza irizpideen aurkezpen saioa egin izana Langileentzako eskuorria egin izana
2. HERRITARREKIK O HARREMANAK	2.1.2.30.	Langileek ezarritako irizpideak betetzea eta urtez urte euskaraz zuentzen diren herritarren kopurua igotzea.	4.Neurketa espezifikoak egin.	Herritarrak	Talde eragilea. Arduradun politiko eta teknikoak	Ezarritako hizkuntza irizpideen betetze maila neurtu izana
2. HERRITARREKIK O HARREMANAK	2.1.2.30.	Langileek eta arduradun politikoez ezarritako irizpideak betetzea eta urtez urte euskaraz zuentzen diren herritarren kopurua igotzea.	1.Langileei irizpideak jakinarazi	Herritarrak	Talde eragilea. Arduradun politiko eta teknikoak	Langileentzako aurkezpen saioa egin izana Langileentzako eskuorria egin izana
2. HERRITARREKIK O HARREMANAK	2.1.2.31.	Langileek eta arduradun politikoez ezarritako irizpideak betetzea eta urtez urte euskaraz zuentzen diren herritarren kopurua igotzea.	2.Langileei irizpideak jakinarazi	Herritarrak	Talde eragilea. Arduradun politiko eta teknikoak	Langileentzako aurkezpen saioa egin izana Langileentzako eskuorria egin izana
1. BARNE- HARREMANAK	2.2.1.35.	Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egitea, eta betetze mailaren jarraipena egitea.	1. Helburu honi lotutako hizkuntza irizpideak azaldu. 2. Laginak bildu eta aztertu. 3. Langileen arteko komunikazio eta informazioarako dauden agiri ereduak euskara hutsez jarri (adibidez: zirkularrak, langileen bilera deialdiak...), eta beharrezkoa balitz eredu batzuk helarazi.	Enpresa pribatuak	Talde eragilea. Udal langileak Arduradun politiko eta teknikoak	Hizkuntza irizpideak azaldu izana Laginak aztertu izana
1. BARNE- HARREMANAK	2.2.1.36.	Langileek ezarritako irizpideak betetzea eta euskaraz lantzea ofizioz abiatutako prozedurak.	1. Hizkuntza irizpideak jakinarazi	Udal langileak	Talde eragilea Arduradun politiko eta teknikoak	Langileentzako aurkezpen saioa egin izana Langileentzako eskuorria egin izana

1. BARNE-HARREMANAK	2.2.1.38.	Langileek ezarritako irizpideak betetzea eta euskarz izatea lanari lotutako hizkuntza-paisaia. Betetze mailaren jarraipena egitea.	1 Helburu honi lotutako hizkuntza irizpideak azaldu. 2. Laginak bildu eta aztertu. 3. Langileen arteko komunikazio eta informaziorako dauden agiri ereduak euskara hutsez jarri (adibidez: zirkularrak, langileen bilera deialdiak...), eta beharrezkoa balitz eredu batzuk helarazi.	Udal langileak	Talde eragilea Arduradun politiko eta teknikoak	Hizkuntza irizpideak azaldu izana Laginak aztertu izana
2. KANPO HARREMANAK	2.2.2.40.	Langileek eta arduradun politikoez ezarritako irizpideak betetzea eta EAeko zein Nafarroako Foru Komunitateko lurralde esparruan kokatuta dauden beste administrazio publikoekin nahiz erakunde ofizialekin, euskara ofiziala den lurraldeetakoekin behintzat, euskara hutsezko harremanak bultzatzea. Betetze mailaren jarraipena egitea	1. Helburu honi lotutako hizkuntza irizpideak azaldu. 2. Gertatzen diren intzidentziak dagokion arduradunari bideratu, eta kudeatzen lagundu. 3. Administrazioen arteko idatzizko harremanen azterketa egin eta datuak jakinarazi dagokion administrazioari, konpromisoak har ditzala eskatzeko.	Udal langileak	Talde eragilea Arduradun politiko eta teknikoak	Hizkuntza irizpideak bete izana Intzidentzia kopurua Sarrera erregistroetako hizkuntza azterketa egin izana
2. KANPO HARREMANAK	2.2.2.40.	Langileek eta arduradun politikoez ezarritako irizpideak betetzea eta EAeko zein Nafarroako Foru Komunitateko lurralde esparruan kokatuta dauden beste administrazio publikoekin nahiz erakunde ofizialekin, euskara ofiziala den lurraldeetakoekin behintzat, euskara hutsezko harremanak bultzatzea. Betetze mailaren jarraipena egitea	5. Lan bileretan (presentziala edo urrutikoa) partaideen gaitasunen araberako konpromisoak zehaztu euskararen presentzia ahalik eta handiena izan dadin.	Udal langileak	Talde eragilea Arduradun politiko eta teknikoak	Hizkuntza irizpideak jakinarazi izana. Lan bileretako erabilera eragiteko konpromisoak zehaztu izana Konpromisoak betetzeko trebakuntza eskaini izana.
